

Fisika Plazara

programa europarra

Eduardo Zabala

Irakaslea

Europako Batasunak 2000. urteko Zientzia eta Teknologiarako Aste Europearraren barruan eta, Europako Partikula Fisikoen Laborategia (CERN), Europako Espazio Agentzia (ESA) eta Europako Hegohegisferioko Behatokiaren (ESO) babesean "Physics on Stage" (POS) delako programa martxan jarri du, euskaraz "Fisika Plazara" deiturikoa.

"FISIKA PLAZARA" PROGRAMAREN HELBURU OROKORRA European Fisika sustatzea da. Hiritarren kultura zientifikoa bultzatzea, Hezkuntza *Curriculum*etan eta giza komunikabideetan Fisikaren presentzia handitzen eta hobetzen laguntzea, ikasleen aukeretan Fisikak duen beheranzko joera aldatzea, horiek dira programaren helburu nagusiak. Oro har, Fisika erronka interesgarriak dituen arloa dela agertu nahi da, bai intelektualki eta bai eguneroko bizitzan erabilgarri diren erronkak dituen.

"Fisika Plazara" programaren bukaera jendaurreko bilera handia izango da. Bilerak 2000. urteko azaroaren 5etik 10era bitartean egingo da Europako Partikula Fisikoen Laborategiak (CERN) Genevan duen egoitzan.



ARTXIBOKOA

"Fisika Plazara" programa Espainian Batzorde Nazionalak koordinatzen du eta Espainiako Fisikako Errege Elkartearen (RSEF) egoitzan dago. Antolatu dituen ekintzetan garrantzitsuenetakoa lehen, bigarren eta Unibertsitateko irakasle eta dibulgatzaileentzako lehiaketa da. Lehiaketa 5 ataletan banatzen da:

- i) erakusketak eta *in situ* egindako praktikak.
- ii) kartel, liburu edo lan-koaderno itxura izan dezaketen unitate didaktikoak.
- iii) informatikaren bitartez prestatutako materialak.
- iv) prentsa-artikuluak, irrati-emanaldiak, bideoak edo telebista-programak.
- v) museoek antolatutako erakusketa zientifikoak.

Lehiaketan parte hartuko duten guztietan Genevako bilerara gonbidatuko diren Espainiako 20 ordezkari hautatuko dira. Aukeraketa Donostiako Miramon Zientziaren Kutxagunean izango da, irailaren

30ean eta lehiaketara aurkezturiko lanik onenen egileak gonbidatuko dituzte.

Aurreikusitako beste jarduerak Fisika dibulгатzeko hitzaldiak dira. Hitzaldi horiek irakasle eta komunikatzaile eza-gunek emango dituzte. Horrez gain, beste ekintza batzuk ere proposatuko dira martxotik azarora bitartean, Fisikaren mundua eta, oro har, zientziaren mundua prentsa, irrati eta telebistan agerian izan daitezke.

"Physics on Stage" programari buruzko informazio gehiago eta txapelketarako oinarriak Interneteko helbide haue-tan lor daitezke:

<http://ific.uv.es/fa2000> edo
<http://www.estec.esa.nl/outreach/pos>.

Bestela, posta elektronikoz eskatu fisicaenaccion@hotmail.com helbidera. 